



||| OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... |||



*Ketik ihesi*

**LURRUNEZKO TRENA.** Azpeitiko Euskal Burdinbidearen Museoak pisu handia du. Baina etenaldi ekonomikoa denera iristen da eta honek ere izan du bere beherakada. 2009an bisitari gutxiago izan baditu ere, etorriko dira urte hobeak. Madrilgo Fitur azokan egon ziren gure herriko turismoa sustatzen. Ea eragina duen eta, laster, Lasao bidean aurrera ikusten dugun trenajendez gainezka.



||| alex silva |||



*Omenaldia*

**KALDEREROAK.** 16 urtez egon dira kaldereroen etorrera antolatzen Ardozaleak Elkartekoak. Aurten Udalak antolatu badu ere, ezin ahaztu horrelako lana eta nor hobe omentzeko, berauek baino? Ondo egindako lan guztia gogora ekarri eta eskertzeko garaia zen.



*Jaiez jai*

**INAUTERIAK.** Azpeitian ezin gara kexatu. Beti gaude jai giroan murgilduta. Oraingoan karnabalak izan ditugu gure artean. Krisiak zorroztasuna pizten omen du, eta horren erakusgarri izan zen astelehen gaua. Denetarik egon zen: udaltzain nudistak, andaluzak eta Amy Wi-

nehouse ugari. Ama birjina ere izan zen bisitari. Ez zuten lan erraza izango udaletxeko epaileek irabazleak aukeratzen. Hala ere, urtero bezala ez dute gaizki egin eta landutako mozorroak izan ziren irabazle. Pena da kalera irten eta ondo egiten duten guztiek ezin irabazi izatea. ■